BELDUR BARIK #LEHIAKETA

20016ko BELDUR BARIK eta TOLOSAKO HI HAIZ, HI! lehiaketen oinarriak

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

ANTOLATZAILEA
ORGANIZA
EMAKUNDE

BULTZATZAILEAK
IMPULSAN
Bizkaia
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
EUDEL
BERDINSAREA

LAGUNTZAILEAK
COLABORAN
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
eitb

1.- LEHIAKETAREN HELBURUAK

Beldur Barik programak Beldur Barik Jarrera! lehiaketaren 7. edizioa antolatu du. Lehiaketa honetan, emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerari aurre egiten dion neska-mutilen arte-adierazpen mota oro onartu, baloratu eta bultzatzen da.

Lan horiek errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukizunean eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan oinarritutako jokabide eta jarrerak izan behar dute.

Parte hartzen duten proiektuek Beldur Barik jarrera islatu behar dute. Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gainditzeko, eta harreman askeak, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitzeko konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi behar dute. Kalitate tekniko edo artistikoaren gainetik, mezuaren kalitatea baloratuko da, nesken ahalduntzetik gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna, eta mutilen konpromisoa matxismoaren aurka.

Zer da Beldur Barik Jarrera?
Honako hau egiten duena:

1.- Indarkeria sexista zein indarkeria matxista (translesbohomofobia) existitzea ahalbidetzen duten faktoreengan hausnartzen du.

2.- Gazteek sexismoaren ondorio diren ezberdintasun egoerak eta adierazpenak nola bizi dituzten identifikatzen du.

3.- Indarkeria sexista zein kultura matxista identifikatzeaz gain, horiei aurre egiten die jarrera kritikoarekin eta positiboarekin, aztarna utziz, bai estrategia kolektiboen bidez, bai norbanako estrategien bidez.

4.- Neskak autodefentsa- eta ahalduntze-jarrerak azaltzen ditu, indarkeria sexistaren eta ezberdintasunen aurrean.

5.- Mutilak jarrera autokritikoak erakusten ditu: ezberdintasun egoeren, kultura matxistaren eta indarkeria sexistaren aurrean jarrera proaktibo eta konprometituan, estrategia kolektiboen zein norbanakoen bitartez, korporatibismo maskulinoarekin hausten dutenak.

6.- Indarkeria sexistaren ikuspegi sentsazionalistatik urruntzen da eta emakumearen

biktima irudia gainditzen du.

7.- Indarkeriaz hitz egiterakoan ohiko estereotipoak gainditzen ditu; alegia, ez da mugatzen bikote/bikote ohi harremaneko indarkeria fisikora. Aldiz, gazteek bizi dituzten askotariko indarkeriak identifikatzen ditu, eta baita horiek zein testuingurutan eta espaziotan gertatzen diren ere.

Adierazpen artistiko mota oro onartuko da, baldin eta ikus-entzunezko formatuan aurkezten bada: flashmoba, kamera aurrean errezitatutako poemak edo irakurritako gogoeta-testuak, argazkiak, argazki-muntaiak, fotonobelak, lipdubak, dantza, film laburrak, animazio proiektuak, proiektu edo artelan bideo-aurkezpenak, performanceak eta kaleko esku hartzeak, etab.

TOLOSAKO HI HAIZ, HI! LEHIAKETARAKO INFORMAZIOA

Lehiaketaren helburua:

Errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeria tinko baztertzean oinarritutako jarrera eta jokabideak hartuta, emakumeenganako egungo desberdintasun-egoerari neska-mutilek aurre nola egiten dioten erakusten dituzten **adierazpen artistikoak aitortu, baloratu eta bultzatzea**.

2.- PARTE HARTZAILEAK

EAEko 12 eta 26 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu ahal dute, bi kategoriatan:

1. **kategoria: 12 – 17 urte**
2. **kategoria: 18 – 26 urte**

Banaka zein taldeka parte hartu ahal da, ikastetxe gisa, ikasgela gisa edo elkarte gisa. Taldeko norbaitek 18 urte edo gehiago baditu, proiektua 2. kategorian sartuko da zuzenean.

Lehiaketan aurkezten diren 18 urtetik beherako gazteek oinarri hauetako 1. edo 2. eranskina bete eta aurkeztu behar dute. (informazio gehiago oinarrietako 5. puntuan).

** 1. eranskina, norbanakoaren baimena: amaren, aitaren edo tutore legalen baimena da, adin txikikoek Beldur Barik lehiaketan parte hartu ahal izateko.*

** 2. eranskina. lana hezkuntza zentroko gela bezala aurkeztekotan, 2. eranskina gehitu beharko da weguneko formulario bidez. Baimena betetzea zentroaren ardura izango da, eta zentroaren beraren ardura izango da adin txikikoen baimenen kudeaketa.*

** Lana gazteleku edo elkarte bezala aurkezten bada, arduradunak jaso behar ditu baimenak (1. eranskina beteta, parte hartzaile bakoitzaren kasuan) eta denak batera bidali.*

Tolosaldeko EAEko Beldur Barik lehiaketara aurkezten diren lanak automatikoki Tolosako Hi haiz, hi! Jaialdiaren lehiaketan txertatuko dira.

3.- AURKEZTU DAITEKEEN PROIEKTU KOPURUA

Pertsona eta talde bakoitzeko, gehienez, 3 proiektu aurkeztu daitezke.

4.- AURKEZTEN DIREN PROIEKTUEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Proposamenek lehiaketaren helburuari erantzun behar diote: indarkeria sexista prebenitzea. Proposamenen edukiek helburuarekin zerikusirik ez badute, edo horren aurka egiten badute edo kalterakoak badira, lehiaketaren antolatzaileek lana ez onartzea erabaki dezakete.

Proposamenak originalak izan behar dira, hau da, inori plagiatu edo kendu gabekoak. Horren susmorik badago, autoretza frogatzeko eskatu ahalko da.

Proiektuak ezingo dira izan Beldur Barikekin zerikusirik ez duten beste jaialdi edo lehiaketa batzuetan aurkeztutakoak.

Piezak euskaraz, gaztelaniaz, bietan, edo beste hizkuntza batean aurkeztu ahal dira (azken kasu horretan, euskarazko edo gaztelaniazko azpitituluekin).

Proiektuek gehienez 5 minutu iraungo dute, kreditu-tituluak barne.

Musika edota irudiak erabiliz gero, egile-eskubiderik gabekoak erabiltzea gomendatzen da (hau da, copyleft lizentzia daukatenak, edo proiektu-egileek sortuak direnak). Egile-eskubideak dituzten abestiak edo irudiak erabiliz gero, parte-hartzaileak bere gain hartuko ditu bideoa igo deneko plataformak edo autoretza eskubideak dituenak bideoaren aurka hartutako neurriak. Era berean, egiaztatzen bada jabetza intelektualaren araudiaren urraketa sortu dela, antolakuntzak lana ez onartzea erabaki dezake.

Proiektu guztiak ikus-entzunezko formatuan aurkeztu behar dira, bideo-plataforma baterako esteka bat jarriz (Youtube edota Vimeo).

Bestelako berezitasun zehatzak:

- 18 urtetik beherako guztiek baimenak erantsi beharko dituzte, egoki beteta (hutsune guztiak beteta eta sinatuta), webgune bidezko formularioa betetzerako orduan. Baimena 1. edo 2. eranskina beteta aurkeztuko da (oinarriekin batera datoz).

- Baimenak sinatuta erantsiko dira webguneko formularioko dagokion atalean. Youtubera edo Vimeora igotako bideoetan jarri behar da bideoaren izena eta zein udalerritatik eta zein kategoriatan aurkezten den. Ez da gehituko parte-hartzaileen izen abizenik, ez eta taldearen izenik ere.

TOLOSAKO HI HAIZ, HI! LEHIAKETARAKO INFORMAZIOA

<u>Eskakizunak</u>:

- Tolosa eta Tolosaldeko 12 eta 26 urte bitarteko neska-mutilak.
- Proposamenak aurkez daitezke banaka edo taldean (taldeen kasuan, gutxienez neska batek parte hartuko du), ikastetxe gisa edo ikastetxeko ikasgela gisa.
- Proposamen kopuruari dagokionez ez dago mugarik.
- Lanak edozein hizkuntzatan aurkeztu daitezke, betiere, euskarara egindako itzulpena erantsiz gero.
- Kontuan hartuko da gaien planteamenduan izandako jarrera eta originaltasuna,